



XXX. ARABAKO BABARRUN PINTAREN AZOKA-ABEREEN ERAKUSKETA

Datorren **2026ko urriaren 11n**, Arabako Babarrun Pintaren Azokaren XXX. edizioa ospatuko da. Aurten ere, azokaren jardueren artean, **abereen erakusketarako** gunek bat egongo da.

Jarraian, abereen erakusketan parte hartzeko oinarriak eta baldintzak zehazten dira.

1. PARTE-HARTZAILEAK

Añanako Kuadrillako abeltzainek izango dute lehentasuna abereen erakusketan parte hartzeko.

Hala ere, antolakuntzak beste abeltzain batzuk gonbidatzeko aukera izango du, bereziki erakusketari aniztasun eta interes handiagoa eman diezaioketen arraza edo ale bereziak dituztenean.

2. ESKAERAK AURKEZTEA

Abereen erakusketan parte hartu nahi duten **abeltzainek** eskaera urkeztu beharko dute **2026ko irailaren 1etik 13ra** bitartean (biak barne).

Eskaerak honako bide hauetatik aurkeztu ahal izango dira: udal-bulegoetan, aralta.info@ayto.araba.eus helbide elektronikoan edo **Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean** lege ezarritako gainerako bideetatik.

3. ABERE-SORTAK

Hasiera batean, honako abere-sorta hauek aurreikusten dira:

- **Zaldiak:** 3 abere-sorta.
- **Behiak:** 2 abere-sorta.
- **Ardiak eta ahuntzak:** 3 abere-sorta.

Abere-sorta bakoitzak, gutxienez, honako animalia kopuru hau izan beharko du:

- **Zaldi handiak:** 4 animalia heldu.
- **Zaldi txikiak:** 5 animalia heldu.
- **Behiak:** 4 animalia heldu.
- **Ardiak eta ahuntzak:** 8 animalia heldu.



Abere-sortak ahalik eta askotarikoenak izatea sustatuko da, eta, ahal den neurrian, animalia helduak zein kumeak egotea bilatuko da.

Hasieran aurreikusitako abere-sorta guztiak betetzen ez badira, **antolakuntzak espezie bakoitzerako aurreikusitako kopuruak aldatu** edo egokitu ahal izango ditu, jasotako eskaeren eta erakusketaren beharren arabera.

Ahalik eta abeltzaintza-ustiategi gehienen parte-hartzea sustatzeko, **abeltzain bakoitzak, hasiera batean, abere-sorta bakarra aurkeztu ahal izango du**. Abere-sortaren bat bete gabe geratzen bada, antolakuntzak interesa duten abeltzainei abere-sorta bat baino gehiago aurkezteko aukera eman ahal izango die.

4. ORDAIN EKONOMIKOA

Erakusketan parte hartzen duen lote oso bakoitzeko 400 euroko ordain ekonomikoa ezartzen da.

5. ANTOLAKUNTZAREN BETEBEHARRAK

Antolakuntzak honako betebeharrak izango ditu:

- Abereen erakusketa behar bezala egiteko beharrezkoak diren baimenak eta autorizazioak izapidetu eta eskatzea.
- Parte hartzen duten abereentzako **aseguru espezifiko kontratatzea**, azoka egiten den bitartean gerta daitezkeen gorabeherak estaltzeko.
- **Abereen erakusketaren arduradun bat izendatzea**, jarduera behar bezala garatzen dela eta animaliak erakusketa-eremuan dauden bitartean haien ongizatea bermatzen dela zaintzeko.
- Animalien ezaugarrien eta espezieen arabera, haiek egoteko eta **erakusteko gune egokiak prestatzea**.
- Erakusketak irauten duen bitartean animaliek ura eskuragarri izan dezaten, behar adina ur-ontzi edo balde jartzea.

6. ABELTZAINEN BETEBEHARRAK

Parte hartzen duten abeltzainek honako betebeharrak izango dituzte:

- **Arabako Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuak eskatutako osasun-baldintzak eta betekizun zoosanitario guztiak betetzea**, animaliak azokara eramateko,



lekualdatzeko, elkartzeko eta abereen erakusketan parte hartzeko. Parte-hartzea, edonola ere, baldintza eta betekizun horiek betetzearen mende egongo da.

- Antolakuntzari, **2026ko urriaren 8a baino lehen**, parte hartuko duten animalien identifikazio-datuak ematea eta, bereziki, belarritako identifikatzaileen zenbakiak jakinaraztea, baita dagokion aseguruan animaliak behar bezala alta emateko beharrezkoa izan daitekeen bestelako dokumentazioa edo informazioa ere.
- Hala dagokionean, ustiategiaren titularrari dagozkion animalien lekualdatze eta mugimenduei buruzko izapideak eta jakinarazpenak egitea.
- **Norberaren aseguru-etxeari edo erantzukizun zibileko aseguruari** Arabako Babarrun Pintaren Azokan parte hartuko duela eta bertan animaliak izango dituela jakinaraztea.
- **Erakusketara eramaten diren animaliak osasun-, higiene- eta ongizate-baldintza egokietan egotea bermatzea**, eta haien zaintzaz eta maneiuaz arduratzea lekualdaketa nahiz azokako esparrura sartzean eta handik ateratzean.
- Animalien osasunarekin, identifikazioarekin, maneiuarekin eta ongizatearekin lotuta antolakuntzak, albaitaritza-zerbitzuek edo agintari eskudunek **emandako jarraibideak une oro betetzea**.

Arabako Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuak ezarritako osasun-baldintzak edo betekizunak ez betetzeak dagokion animalia edo lotea erakusketan parte hartu ezinik geratzea ekar dezake.